



"2018ko Literatur Lehiaketa, Iruñeko eta Iruñerriko ikastetxe publiko eta itunduei zuzendua"

Iruñeko Udalak "2018ko Literatur Lehiaketa, Iruñeko eta Iruñerriko ikastetxe publiko eta itunduei zuzendua" deitzen du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 17koan, argitaratua) xedatzen duenarekin bat.

1.- XEDEA.-

2018ko Literatur Lehiaketa, Iruñeko eta Iruñerriko ikastetxe publiko eta itunduei zuzendua:

Lehiaketa honen xedea da Iruñeko eta Iruñerriko ikastetxe publiko eta itunduetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleek egindako literatur lanik hoberenak saritzea, ipuinen eta komikien modalitateetan.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Hona hemen sari-modalitateak:
(Hala euskarazko lanentzat nola gaztelaniakoentzat)

IPUINAK:

- A KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailak.
- B KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailak.
- C KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailak.
- D KATEGORIA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailak.

KOMIKIAK:

- A KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailak.
- B KATEGORIA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailak.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 12.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida hauen kargura:

50/32630/480000

50/33500/480000

Hona hemen sari-modalitateak: 2. klausulan jasotakoaren arabera:

Gehienezko aurrekontu-kontsignazio horretatik, 6.000 euro 50/32630/480000 partidaren kontura esleituko dira, gaztelaniazko sarietarako, eta beste 6.000 euro 50/33500/480000 partidaren kargura, euskarazko sarietarako.



- Lehen saria: 300 euro eskola-materialetan, ikastetxerako, eta 250 euro eskola-materialetan, egilearentzat.
- Bigarren saria: 200 euro eskola-materialetan, egilearentzat.
- Hirugarren saria: 150 euro eskola-materialetan, egilearentzat.
- Laugarren saria: 100 euro eskola-materialetan, egilearentzat.

Eskolako material-sorta txartel baten bidez jasoko da, eta hori sariak zenbat jo eta horrenbestekoa izanen da. Ikasle saridunek hautatutako eskola-materialarekin trukatu dute txartela, betiere hori noizkoa den eta hurrengo lau hilabeteko epean. Txartela ez bada erabiltzen, Iruñeko Udalak ulertuko du saritutako pertsonak edo ikastetxeak uko egin diola jasotako saria hartzeari.

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko ditu, beretako bakarrik eta mundu mailan, saritutako lan bakoitzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak; orobat, lan horiek erreproduzitu, banatu, jendaurrean paratu eta eraldatu ahalko ditu, libreki eta ezer gehiago ordaindu gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzkotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzekoa, eta horien artean, bereziki, liburu batean edo euskarri digital edo zenbakizkoan edizioa egitekoa, zein lana banatzeko eta jendaurrean paratzeko eskubideak, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira. Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola Internet erako sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Iruñeko eta Iruñerriko ikastetxe publiko eta itunduetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko (DBHko 1. eta 2. mailetakoa) ikasleek hartzen ahalko dute parte lehiaketa honetan.

Ikastetxe parte-hartzaileek gehienez ere bost (5) lan aurkeztuko dituzte ikastalde eta modalitate bakoitzeko, ikastetxeak aldeztu aurretik hautatuta.

Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaie arau horretan ezarritako debekua:

☐ BAI ☒ EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-

Lanak honako helbide honetara bidali behar dira:

Kultura eta Hezkuntzako Alorra, Descalzos kalea, 72.- 31001 Iruña.

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituenen artean.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2018ko apirilaren 30ean amaituko.

Ikastetxeek aurkeztutako lanek ondoko hedadura izanen dute:



IPUINAK:

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak): 2 orri gehienez ere, alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne.

B kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak): 3 orri gehienez ere, alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne.

C kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak): 4 orri gehienez ere, alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne.

D kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak): 6 orri gehienez ere, alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne.

KOMIKIAK:

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak): 3 orri gehienez ere, DIN A-4 formatukoak edo horren pareko neurrikoak.

B kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak): 4 orri gehienez ere, DIN A-4 formatukoak edo horren pareko neurrikoak.

Gaia librea izanen da, eta lanek jatorrizkoak izan behar dute, ez-itzuliak, eta gaztelaniaz edo euskaraz idatziak. Lan bera ezin izanen da hizkuntza ezberdinetan aurkeztu.

Lanak aurkezterakoan, datu hauek adierazi behar dira gutun-azalean, honela:

IRUÑEKO UDALAREN LITERATUR LEHIAKETA, HAURRENDAKO

HIZKUNTZA:

MODALITATEA:

KATEGORIA:

LANAREN IZENBURUA:

EGILEAREN IKURRITZA EDO IZENORDEA:

Halaber, gutun-azalaren barnean, lanaz gain, beste gutun-azal bat sartuko da, itxita, egilearen ikurritzaz edo izenordeaz errotulaturik, non egilearen datu hauek sartuko baitira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, ikasmaila eta ikastetxea).

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratu ahal izanen dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitu egin ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAI A.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatu du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkaria / Ordezkoa: Alorreko zuzendaria.

- Epaimahaikideak:

Gaztelaniazko lanetarako:

- Lehen Hezkuntzako Hizkuntza-irakasle bat, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Lehen Hezkuntzako Hizkuntza-irakasle bat, Kultura eta Hezkuntza Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Haur literaturako aditu bat, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Komikien arloko espezialista bat, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Udaleko pedagogoak.

Euskarazko lanetarako:



- Hizkuntza eta Literaturako irakasle bat, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.
 - Haurren adierazpen plastikoko aditu bat, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.
 - Euskaltzaindiaren ordezkari bat.
 - Udaleko euskara koordinatzailea.
- Idazkaria: Administrari bat, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

Lehiaketara lan asko aurkeztu direlako beharrezkoa balitz, bi epaimahaietan kide bat edo gehiago erants daitezke, lanak irakurri, zuzendu eta epaia lehenago emate aldera.

Saria emateko proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaio, hau da, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zinegotzi ordezkariari, horrek proposamenaren gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe utzi ahal izango da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: ☐ BAI ☒ EZ

Baldin eta sari bat egile batek baino gehiagok egindako lan bati ematen bazaio, ex aequo banatuko da, egileen artean.

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Jasotako izaera pertsonaleko datuak babestuko dira, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duen Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat. Aipatu Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan jasotako datu pertsonalak sari hau kudeatzeko baino ez dira erabiliko, eta Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bildu ahalko dira. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalari zuzenduta gauzatzen ahalko da datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, Erregistro Orokorrera joaz. Lehiaketa hau egin bitartean jasotako irudirik erabiltzeko, beharrezkoa izanen da interesdunek aldeztu aurretik baimena sinatzea.

8.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa lehiaketa hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Udaleko Iragarki-taula.



9 - KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

5. klausulan adierazitakoa gorabehera, saritu gabeko lanak berreskuratu ahal izanen dira Iruñeko Udaleko Kultura eta Hezkuntzako Alorrean (Descalzos kalea 72, 2. solairua).

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarriak onartu eta haiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro organo emaileak ebatziko du.

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.